



## DATU BABESAREN INGURUKO INFORMAZIO GEHIGARRI ETA XEHATUA

**Tratamendua: Asistentzia kudeatu eta ematea.**

**Arduraduna:** OSATEK SA,  
IFK: A01126309,  
Posta-helbidea: Urkixo Zumarkalea 36, 5. pisua - 48011 - Bilbo (Bizkaia)  
Telefonoa: 94 400 7112  
Posta elektronikoa: [informacion@osatek.eus](mailto:informacion@osatek.eus)  
*Datu Babeserako Deleatuaren kontaktua:* [dpd@osatek.eus](mailto:dpd@osatek.eus).

**Helburua:** Diagnostiko mediko bat eskuratzeko asistentzia ematea eta kudeatzea; kudeaketa horretan asistentziaren kalitatea hobetzea eta kontrola sartzen dira eta, horrenbestez, inkestak, elkarrizketak eta antzeko beste zenbait jardura egitea, erabiltzaileek jasotako zerbitzuaren kalitatearen inguruko informazioa eskuratzeko.

Datuak gorde egingo dira haiek biltzeko arrazoi izan zen helburua betetzeko behar diren bitartean edo interesdunak datuak ezabatzeke eskatzen ez duen bitartean, eta dagokion denboraldian gordeko dira helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezken egoeren arduradunak zehazteko. Dokumentazio klinikoak gordetzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa aplikatuko da.

**Legitimazioa:** DBEO: 6.1.a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.

8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalak dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa.

**Hartzaileak:** Datuak diagnostikoa eskatzen duten entitate edo profesionali asistentzia sanitario egokia emateko edo lege-eginbehar bat betetzeko soilik emango zaizkie, eta hala balegokio, osasungintzako beste profesional batzuei diagnostiko hori egiaztatu dezaten; ordaintzen duen entitateari ere lagako zaizkio datuak emandako zerbitzuen fakturazioa egin dezan.

**Eskubideak:** Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonaletara sartzeko, eta baita datu okerrak zuzentzeko eskatzeko ere. Beharrezkoa izanez gero, interesdunek datuen ezabatzea eskatzeko eskubidea daukate, bestek beste, datu horiek jadanik jaso ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean. Zenbait egoeratan, interesdunak bere datuen tratamendua aurkaratu edo tratamenduren mugaketa eskatu dezake. Kasu horretan, datu horiek erreklamazioen aritzerako edo defentsarako soilik gordeko dira.

Interesdunak eskubide horiek materialki gauzatu ahalko ditu OSATEK SA-ko Datuen Babeserako Delegatuarekin harremanetan jarriz [dpd@osatek.eus](mailto:dpd@osatek.eus) helbidera idazki bat bidaliz, eta eskaera egiteko ereduak edo inprimakiak emango zaizkio.